

*Hilobi erraldoi bat besterik ez zara,  
paradisuak laztantzen dakizun  
itsaso urdina.*



**Lur arrotzak**  
Amaia Lasa

erein

# LUR ARROTZAK

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*Liburu honek Eusko Jauriaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.*

*1. argitalpena: 2026ko ekainean*

Liburuaren edizioa:

Mikel Soto

Liburuaren diseinua eta maketazioa:

Asier Beltza

Azalaren diseinua:

Iván Landa

© Amaia Lasa

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-125-1

L.G.: D 402-2026

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

[erein@erein.eus](mailto:erein@erein.eus)

[www.erein.eus](http://www.erein.eus)    

Inprimatzailea: Ulzama

Altutzate kalea, 51

31620 Huarte, Nafarroa

T 948 332 808

[contacto@ulzama.com](mailto:contacto@ulzama.com)

[www.ulzama.com](http://www.ulzama.com)



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Amaia Lasa

# LUR ARROTZAK



## ITSASOKO IZAKIA

Bada  
kosmo oparoan  
itsasoa  
lurra  
eta ni  
besarkatzen garen  
une bat.

Elkartzen garen toki bat.

Aingura astun baten  
burdinazko hariak hautsiz  
ozeano urdinaren ur sakonetan  
emeki-emeki murgilduz  
itsas azpiko lur sutsuetara  
hurbiltzen dihardut.

Hegorik gabeko izakia  
olatu handietako igerilari trebea  
ekaitz ugarietan birsortua  
hamaika mila koloretako zoofitoen artean  
bizituz  
itsasoko izakia izanik  
aske diraut.

Itsas hondoetako amildegi korapilotsuetan  
ez da ezer entzuten  
iluntasuna da nagusi  
sentipenen sinfonia aunitzetan urperaturik  
guztiak higitzen dihardu  
ezer ez dago geldirik.

Lur itsastar hauetan  
ene bihotz urdinaren taupadak  
amets baketsuetan  
lasaitzen dira.

Itsaso alaien gose  
ozeano indartsuen egarri  
olatuen brankan  
itsasoko izakia izanik  
ni  
naiz.

## GETARIA

Zuzen zutik itsas gainean eraikia.  
Olatuek maitatzen duten harria.  
Gure mendi eta itsasoen besarkada baketsua.  
Gure begietako Getaria,  
hego haizeak hamaika kolorez janzten duen lurra.  
Kaiu galdu guztien tonpia  
fraileburu hil zuten gauean  
esperantzarik galdu ez zuen herria.

## ITSASO URDINA

Antzina

jakituria ezberdinen herrialdeen itsaso,

kolore aniztun ohituren paraje,

sinesmen desberdinen elkargune,

babesleku aberats

alaia

baketsua.

Bizitza

adoretzu altxatzen zen zure bazter guztietan

paradisu ugari sorturik.

Behin,

zure lurraldeetako bat,

armen indarrez gailendurik

guztiona zena

eurena bihurtu zintuzten

Mare Nostrum izendatuz.

Egun  
sartaldeko inperio berri  
urre zale  
bihozgabeak  
zure infernu zaharkituak  
berpiztu dituzte.

Bidaiari askoren ibilbide  
latz  
ekaiztsu  
bortitza zara orain.  
Herioa ez da urruneko zerbait  
egiazko bizitzaren bila dabilentzat.

Milaka haur  
gazte  
emazte  
gizon irensten dituzu  
egunero.  
Hilobi erraldoi bat besterik ez zara,  
paradisua lastantzen dakizun  
itsaso urdina.

Noiz?  
Esan egidazu  
noiz jaurtikiko dituzu  
itotako gorputz urdinduak?  
BIZIRIK!

Itsaso urdinaren ur sakonetatik garrasi bat entzuten dugu

–Hau ez da nire patua,  
hilotzez zamaturik nago  
nire urdintasuna ubelduz.  
Erraiak dardarka ditut  
bizitzaren maitale nintzena.  
Ez, ez da nire errua.